



AZPEITIKO  
ARGAZKI  
ELKARTEA

## **XLIV. SOKAMUTURRA ARGAZKI LEHIAKETA "IMANOL ELIAS" SARIA**

Antolatzailea: **AZPEITIKO ARGAZKI ELKARTEA**  
Babeslea: **AZPEITIKO UDALA**



### **OINARRIAK**

1. Nahi duen pertsona orok parte har dezake argazki lehiaketa honetan.
2. Gaia: **2024ko Otsailaren 11,12 eta 13an Azpeitian**, Inauterietako festetan ospatuko den helduen **Sokamuturra**.
3. Sokamuturra gaia **zuri-beltzean** izango da. Ezin izango da fotomuntaiarik aurkeztu.
4. Egile bakoitzak aipatutako gaiari buruz gehienez **bost argazki** aurkeztu ditzake. Sari **bakarra** lortu ahalko duelarik "sari berezia" kontutan hartu gabe.
5. Argazkiak **paperean** entregatu beharko dira (tamaina 20 x 30 zm), atzealdean, argazkiaren izenburua, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia azaldu beharko direlarik **eta artxibo dijitala ere bai bidali beharko da helbide honetara;**

[erakusketakaae@gmail.com](mailto:erakusketakaae@gmail.com)

### **ARGAZKIAK AURKEZTERAKOAN, BI FORMATUETAN AURKEZTEN EZ DITUZTEN LEHIAKIDEAK, LEHIAKETATIK KANPORATUAK IZANGO DIRA**

6. Lanak pakete edo sobre itxian bidali beharko dira helbide hauetara:

**Azpeitiko Argazki Elkarteak edo**  
**Apdo. Correos 326**  
**20730 Azpeitia**

**Azpeitiko Argazki Elkarteak**  
**Soreasu Auzoa 1**  
**Dinamoia Sormen Gunea – 1. Solairua**  
**20730 Azpeitia**

7. Lanak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 22a, osteguna, iluntzeko 22:00**etan amaituko da. (egun horretan argazkiak elkartean egon beharko dute)
  
8. Honakoak izango dira sariak:  
  
Lehenengo postua: 365 € eta garaikurra  
Bigarren postua: 235 € eta garaikurra  
Hirugarren postua: 200 € eta garaikurra  
Laugarren postua: 120 €  
Bosgarren postua: 80 €.
  
9. Gainera, sari berezi bat egongo da: **Iñaki Joaristi "Altzarte", 150 € eta Plaka, Inauterietako Jai Giroari** buruzkoa argazki onenari. Hau **KOLORETAN** aurkeztu beharko da. Sari honetarako, partaide bakoitzak **bi argazki** aurkeztu ahal izango ditu, 4 eta 5 puntuetako betebeharrak jarraituz.
  
10. Epaimahaia Azpeitiko Argazki Elkarteak aukeratuko du.
  
11. **Sari banaketa, 2024ko martxoaren 2an, larunbata, eguerdiko ordu-batean**, erakusketa irekitzearekin batera, egingo da.
  
12. Saritutako argazkiak erakunde antolatzailearen jabetzan geratuko dira. Irabazleak ez direnak, erakusketa ixten denetik hurrengo hamabost egunetan jaso ahal izango dira Azpeitiko Argazki Elkartean.
  
13. Ohiturari jarraituz parte hartzaile guztiak afaltzera gonbidatuta daude, non irabazleek sariaren %25 emango duten afaria ordaintzeko, gainontzekoa norberak ordaindu beharko duelarik.

#### **OHARRA:**

**AAEk, ez du bere gain hartzen ekintza garatzen den bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sor daitezkeen kalte edota hondatzearen aurrean inolako erantzukizunik.**

**Ekintzan parte hartzen dutenak izango dira beren buruaren, argazki ekipoen eta ondasunen arduradun bakarrak, eta baita ekintza garatzean hirugarrengoei eta bere ondasunei sor lekizkiekeen kalteenak ere.**

**Ekintza honetan parte hartzeak berekin dakar arauok erabat onartzea.**